**Organoa edo batzordea:** Osoko Bilkura.
**Bilera-mota:** Apartekoa.
**Eguna:** 2011/07/20.
**Ordua:** Hasiera: 19:30. Bukaera: 19:50
**Tokia:** Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

**Bertaratuak:**
Kepa Urzelai Goitia, Bildu.
Sagrario Etxabe Lasa, Bildu.
Amaia Solanas Arzitimuño, Bildu.
Lourdes Ugarte Garrido, Bildu.
Aitor Uribeetxeberria Bidedain, Bildu.
Igor Urrate Ugalde, Bildu.
Raquel Puente Irurtia, Bildu.
Ane Urkiola Alustiza, EAJ
Aitor Madina Murua, EAJ.
Oscar Valbuena Pascual, PSE-EE.
Arantza Arizmendi, Hamaikabat.
Ainhoa Urruela Bordegarai, behin-behineko idazkaria.

**Ezin duela etorri adierazi du:**
Francisco Javier Iraeta Alvarez

**Ez da etorri:**
Jose Morcillo Guerrero PSE-EE.

**Aztergaiak:**

1. Bidezkoa bada, Sasietako mankomunitatean Legazpiko Udalaren ordezkari izango direnak erabakitzeko joan den 2011ko uztailaren 4ko Osoko Bilkuran onartu ziren izendapenak baliogabetzea.

2. Legazpiko Udalak Sasietako mankomunitatean izango dituen 2 ordezkariak eta haien ordezkoak izendatzea.

**Organo o comisión:** Pleno.
**Tipo de convocatoria:** Extraordinaria.
**Día:** 20/07/2011.
**Hora:** Comienzo, 19:30. Final: 19:50
**Lugar:** Salón de Plenos del ayuntamiento de Legazpi.

**Asistentes:**
Kepa Urzelai Goitia, Bildu.
Sagrario Etxabe Lasa, Bildu.
Amaia Solanas Arzitimuño, Bildu.
Lourdes Ugarte Garrido, Bildu.
Aitor Uribeetxeberria Bidedain, Bildu.
Igor Urrate Ugalde, Bildu.
Raquel Puente Irurtia, Bildu.
Ane Urkiola Alustiza, PNV
Aitor Madina Murua, PNV.
Oscar Valbuena Pascual, PSE-EE.
Arantza Arizmendi, Hamaikabat.
Ainhoa Urruela Bordegarai, secretaria accidental.

**Excusan su asistencia:**
Francisco Javier Iraeta Alvarez

**No acude:**
Jose Morcillo Guerrero PSE-EE.

**Orden del Día:**

1. Revocación, si procede, de los nombramientos realizados por el Pleno celebrado el 4 de julio de 2011 en relación a los representantes del Ayuntamiento de Legazpi en la Mancomunidad de Sasieta.

2. Nombramiento de los dos repesentantes y los dos suplentes del Ayuntamiento de Legazpi en la Mancominudad de Sasieta.



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

**Esan-eginak eta erabakiak:**

**1. Bidezkoa bada, Sasietako mankomunitatean Legazpiko Udalaren ordezkari izango direnak erabakitzeko joan den 2011ko uztailaren 4ko Osoko Bilkuran onartu ziren izendapenak baliogabetzea.**

Alkateak hartu du hitza. Lehendabizi urgentzia bozkatuko da.

Urgentzia botaziora eraman ondoren, aldeko 7 botorekin, kontrako 2 botorekin (EAJko zinegotziak) eta 2 abtentziorekin (PSEE-EEko zinegotzia eta Hamaikabateko zinegotzia) onartu da.

Baliogabetzea botaziora eraman ondoren, aldeko 7 botorekin, kontrako 3 botorekin (EAJko zinegotziak eta Hamaikabateko zinegotzia) eta abstentzio batekin (PSEE-EEko zinegotzia) onartu da.

Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza. Baliogabetzearen arrazoia zein den jakin nahi duela esan du.

Alkateak hartu du hitza. Arrazoia da, berriak direla eta lehenengo aparteko plenoan hanka sartu zutela. Uste du gehiengoa edukita beraiek egon behar direla.

Ane Urkiolak hartu du hitza. Hori entzun nahi zuen. Gaur pleno honetan erabakitzen dena, ez da akats baten zuzenketa, baliogabetzen dena da aurreko plenoak lege bidez onartutako egintza administratibo bat. Bailogabetzen dena erabaki politiko bat da eta horretarako erabiltzen da gehiengo absolutua. Behin baino gehiagotan udal gobernutik adierazi dute denok parte hartu behar dutela, danontzako dagoela lana. EAJ lana egiteko prest dago; ez dute gobernuan parte hartuko, ez du inongo zentzurik Bilduk gehiengo absolutua izanda. Ez

**Temas debatidos y acuerdos adoptados:**

**1. Revocación, si procede, de los nombramientos realizados por el Pleno celebrado el 4 de julio de 2011 en relación a los representantes del Ayuntamiento de Legazpi en la Mancomunidad de Sasieta.**

Toma la palabra el Alcalde. En primer lugar se procederá a votar la urgencia.

Sometida la urgencia a votación es aprobada por 7 votos a favor, 2 votos en contra (los concejales del PNV) y 2 abstenciones (el concejal de PSEE-EE y la concejala de Hamaikabat)

Sometida la revocación a votación es aprobada con 7 votos a favor, 3 votos en contra (los concejales del PNV y la concejala de Hamaikabat) y 1 abstención (el concejal de PSEE-EE)

Toma la palabra Ane Urkiola. Desea saber cúal es el motivo de la revocación.

Toma la palabra el Alcalde. La razón es que son nuevos y en el pleno extraordinario se equivocaron. Cree que teniendo mayoría, son ellos los que tienen que estar.

Toma la palabra Ane Urkiola. Eso era lo que quería escuchar. Lo que se decide en el pleno de hoy no es la corrección de un error, lo que se revoca es un acto administrativo legitimo aprobado por el pleno. Lo que se revoca es una decisión política y para ello se utiliza la mayoría absoluta. En más de una ocasión desde el gobierno municipal se ha manifestado que todos tienen que participar, que hay trabajo para todos. El PNV está dispuesto a trabajar; no participarán en el gobierno, no tiene sentido si Bildu cuenta con mayoría absoluta. No entrarán en el gobierno como



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

dira morroi gisa gobernuan sartuko baina batzordeetan lan egingo dute eta interesa daukate Sasietan parte hartzeko. Beraien jarrera azaldu zuten bi ordezkarietatik bat uzteko, EAJak ordezkari bat eta bestea Bilduk izateko. Bere ustez hori da lankidetza eta parte hartzeko bide bat. Gaizki hasten dira gehiengo absolutu batekin erabaki aldebakarrekoak hartzen. Uste du ez diotela bere proposamenari erantzun.

Igor Urratek hartu du hitza. Alkateak esan duen bezala akats bat izan zen, berriak dira eta denok dakite zergatik diren berriak. Ez daukate beraien artean esperientzia duen pertsona bat momentu horretan laguntzeko. Hanka sartzen denean lehenbailehen hanka ateratzeko aukera dagoenean iruditzen zaie hori egitea dela onena. 13tik 7 ordezkari dauzkate, eta iruditzen zaie mankomunitatea garrantzitsua izango dela hurrengo urteetan erabaki garrantzitsuak hartuko direlako eta uste dute plenoan daukaten ordezkaritzarekin Sasietako bi ordezkariak bereak izan behar direla. Beraz, hanka lehenbailehen ateratzen dute eta besteak ongi etorriak izango dira batzordeetan lan egiteko. Ez dira izkutuan ibiliko informazioarekin beste urte batzuetan gertatu den bezala. Mankomunitateko informazioa edukiko dute, besteek eskatu dezakete eta elkarlanerako prest badaude debatituko dute eta informazioa emango diete.

Ane Urkiolak hartu du hitza. Plenoan erabaki zena egintza politiko legezkoa izan zen, kontuan hartu gabe Bilduren asmoa zein zen. Objektiboki, hartutako erabakia bertan behera utziko dute gehiengo absolutua erabiliz. Bestalde, mankomunitatean egotea garratzitsua da eta horregatik beraiek ere egon nahi dute eta horregatik bion arteko parte hartzea eskaini diete. Dirudienez Bilduk gehiengo absolutua erabiliko du bere ordezkaritza izateko, baina ez

sirvientes pero participarán en las comisiones y tienen interés por participar en Sasieta. Mostraron su disposición de renunciar a uno de los representantes para que Bildu contara con un representante y el PNV con otro. Considera que eso es trabajar en común y una manera de participar. Empiezan mal valiendose de la mayoría absoluta para adoptar decisiones unilaterales. Cree que no han contestado a su propuesta.

Toma la palabra Igor Urrate. Tal y como ha indicado el Alcalde, hubo un error, son nuevos y todos conocen por qué lo son. No cuentan con nadie que tenga experiencia y que hubiera podido ayudarles en esa situación. Considera que cuando se mete la pata lo mejor es sacarla cuanto antes. De los 13 concejales 7 son de Bildu y consideran que la mancomunidad será muy importante en los próximos años porque se adoptarán decisiones importantes. Por ello, consideran que teniendo en cuenta su representación en el pleno, deben de contar con los dos representantes. Por lo tanto, corrijen el error lo antes posible y el resto de partidos serán bienvenidos para trabajar en las comisiones. No ocultarán información como ha ocurrido en años anteriores. Dispondrán de la información de la mancomunidad y el resto podrá solicitarla y si están dispuestos a trabajar conjuntamente, se debatirá y se facilitará la información.

Toma la palabra Ane Urkiola. El pleno acordó un acto político legítimo, independientemente de cual fuera la intención del equipo de gobierno. Objetivamente, revocarán una decisión valiéndose de la mayoría absoluta.
Por otra parte, participar en la mancomunidad es importante y por eso ellos quieren participar y le han ofrecido al equipo de gobierno una participación conjunta. Por lo que parece, Bildu utilizará su mayoría absoluta para obtener su



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

daude ados eta hasteko modu kaskarra dela uste dute.

Igor Urratek hartu du hitza. Gaizki hasten dira haien ustez, beraien ustez ez, horregatik zuzentzen dute, baina irekita daude etorkizunean elkarrekin lan egiteko.

Oscar Valbuenak hartu du hitza. Esan duten bezala 13 zinegotzitik 7 Bildukoak dira, erdia gutxi gora behera eta, beraz, bai Gobernuak eta bai udal oposizioak ordezkatuta egon beharko lukete modu berean. Proposamen alternatibo hau bozkatzea nahiko luke: ordezkari bat Bildukoa izatea eta bestea EAJ alderdikoa.

Alkateak hartu du hitza eta bigarren puntua aztertzean hautagai hori aurkezteko aukera izango duela erantzun dio.

**2. Legazpiko Udalak Sasietako mankomunitatean izango dituen 2 ordezkariak eta haien ordezkoak izendatzea.**

Alkateak hartu du hitza. Bilduren proposamena honakoa da: Igor Urrate eta Kepa Urzelai titular moduan eta Lourdes Ugarte eta Amaia Solanas ordezkoak.

Oscar Valbuena hartu du hitza. Bere proposamena: Alkatea eta Javier Iraeta.

Ane Urkiolak hartu du hitza. Azken finean hori da EAJak Bilduri egindako proposamena.

Emendakina botaziora eraman ondoren, ez da onartu kontrako 7 botorekin eta aldeko 4 botorekin (EAJko zinegotziak, PSEE-EEko zinegotzia eta Hamaikabateko zinegotzia).

Beraz Sasietako ordezkariak Igor Urrate eta

representación, pero no estan de acuerdo y no les parece una buena manera de empezar.

Toma la palabra Igor Urrate. Según ellos han empezado mal pero no están de acuerdo, por eso corrijen el error, pero están dispuestos a trabajar conjuntamente en el futuro.

Toma la palabra Oscar Valbuena. Como se ha dicho, tienen el 50% de la representación aproximadamente y cree que tanto el Gobierno como la oposición municipal tiene que estar representada de igual forma. Le gustaria que se votara esta propuesta alternativa: uno de los representantes sería de Bildu y el otro del PNV.

Toma la palabra el Alcalde. Tendrá la posibilidad de presentar esa candidatura al tratar el segundo punto.

**2. Nombramiento de los dos repesentantes y los dos suplentes del Ayuntamiento de Legazpi en la Mancominudad de Sasieta.**

Toma la palabra el Alcalde. La propuesta de Bildu es la siguiente: Igor Urrate y Kepa Urzelai serán los titulares y Lourdes Ugarte y Amaia Solanas las suplentes.

Toma la palabra Oscar Valbuena. Presenta su propuesta: el Alcalde y Javier Iraeta.

Toma la plabra Ane Urkiola. Se trata de la misma propuesta que el PNV le hizo a Bildu.

Sometida la enmienda a votación es rechazada con 7 votos en contra y 4 a favor (los concejales de PNV, el concejal de PSEE-EE y la concejala de hamaikabat).

Por lo tanto los representantes municipales en Sasieta serán: Igor Urrate y Kepa Urzelai.



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

Kepa Urzelai izango dira eta ordezkoak Lourdes Ugarte eta Amaia Solanas.

Segidan Oscar Valbuena zinegotziak hartu du hitza. Azkenean Sasietan udal ordezkari izango direnak alkatea eta Igor Urrate izango direnez, oposizioari zergatik parte hartuko ez duen azaldu beharko zaio. Horrezaz gain, udal gobernuak Sasietara eramango dituen proposamenak zeintzuk izango diren eta zer defendatuko den adierazi beharko da.

Denek dakitenez, oso gai inportantea da. Sasieta zabortegiak bi urteko ibilbidea du eta, beraz, oraintxe bertan proposatu behar dira alternatibak edo konponbideak. Gai hori garrantzitsutzat hartu da eta gainerako alderdi politikoei ateak itxi zaizkienez, ingurumenari buruz eta, batez ere, hiri-hondakinak biltzeari buruz aurrera eramango duten politika zein izango den jakin nahiko lukeela esan du.

Beraiek garbi dute edukiontziak lurpean jarri beharko liratekeela eta, batez ere, Plazaola kalean eta Egialde auzoan. Erre beharra edo zabortegiak pilatzea murriztu behar da eta horretarako aukera hau bultzatzen dute: konpost egitea. Gainera badago aukera bat konpost egitearena sustatzeko edo bultzatzeko: zabor-bilketaren gaineko zergan beherapenak eskaini, lan horretan parte hartuko dutenak nolabait sarituz. Hori da beraien jarrera eta Alkatearena zein den jakin nahiko luke.

Alkateak hartu du hitza. Gaur hemen bozkatuko dena hartutako erabaki bat atzera botatzea eta ordezkari berriak izendatzea izango da eta ez dira Sasietako gaia eztabaidatzen hasiko. Beraien jarrera aurrerago aurkeztuko dute dagokion batzordean.

Segidan Oscar Valbuena jaunak hartu du hitza. Garbi dago gaurko Osoko Bilkura ez dela

Como suplentes actuarán Lourdes Urrate y Amaia Solanas.

Toma la palabra Oscar Valbuena. Puesto que finalmente van a ser el Alcalde e Igor Urrate los representantes del Ayuntamiento en Sasieta, debería explicarse por qué la oposición no participa y cuales van a ser las propuestas que desde el gobierno municipal se van a trasladar a Sasieta y que posturas se van a defender.

Como todos saben, es una materia importante y más cuando el vertedero de sasieta tiene aproximadamente dos años de vida y por tanto desde ahora mismo hay que plantear alternativas o soluciones. Como se ha considerado importante esta materia y se ha cerrado el paso al resto de partidos políticos, le gustaria saber cúal va a ser la política en materia medioambiental y más concretamente en la recogida de residuos urbanos.

Ellos en esa materia tienen claro que debe realizarse el soterramiento de los contenedores y más concretamente en Plazaola y Egialde y disminuir la necesidad de incinerar o bien de almacenar vertederos, con una alternativa: promocionando el compostaje. Además hay una propuesta que es promocionar o incentivar ese compostaje reduciendo el impuesto de basuras, premiando a los que se involucran en esa tarea. Esta es su postura y desea saber cúal es la del Alcalde.

Toma la palabra el Alcalde. Hoy lo que votamos es la revocación y el nombramiento de los nuevos representantes y no van a entrar a discutir en el tema de Sasieta. Su postura la presentarán más adelante en la Comisión correspondiente.

Toma la palabra Oscar Valbuena. Está claro



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

horretarako baina gaia nondik nora bideratuko den jakitea nahiko luke.

Alkateak hartu du hitza eta Sasietaren gaia aztertuko denean esku artean duten guztiaren berri emango dietela eta, ondoren, gaia dagokion Osoko Bilkuran aztertuko dela erantzun dio.

Alkateak, arratsaldeko 19:50ak direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

que el Pleno de hoy no es para eso pero le gustaría que manifestaran algunas pinceladas para conocer cómo orientaran este tema.

Toma la palabra el Alcalde. cuando se trate el tema de Sasieta les comunicaran todo lo que tengan y después se tratará en el Pleno correspondiente.

El alcalde levanta la sesión, siendo las 19:50 horas, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta de todo lo cual, yo, la secretaria, doy fe.

| | |
|---|---|
| Akta hau 2011/09/28an egindako bileran onartu zen:<br><br>☐ bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.<br><br>☐ baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak. | Este acta fue aprobada en la sesión del día 28/09/2011:<br><br>☐ en su integridad, sin ninguna objeción.<br><br>☐ si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas. |
| Ainhoa Urruela Bordegarai<br>Idazkaria | Kepa Urzelai Goitia<br>Alkatea |



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net